

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

5712

AGINDUA, azaroaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko lehiaketa-oposiziorako deialdia egiten duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, zeina abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu baitzuen, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eginkizunak, atribuzioak eta ezaugarri nagusiak ezartzen ditu, bai eta Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko oinarritzko betekizunak ere. Kidego hori karrerako irakasle funtzionarioei zuzendutako oposizio-lehiaketa baten bidez bideratuko da.

Abenduaren 19ko 15/2008 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitez kanpoko irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sartzekoak, kidego propio gisa sortu du Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoa.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakas-kuntza-kidegoetan sartzeko, iristeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudiak, eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrerako araubide iragankorra arautzen duenak, xehetasunez eta oinarritzko izaerarekin zehazten du kidego horretan sartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2021erako enplegu publikoaren eskaintza onartu da, Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakiaren bidez. Erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2021erako enplegu publikoaren eskaintza onartu da, eta Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024 Berpiztu Programan sartu dira Ertzaintzaren oinarritzko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko plazak (2021eko abenduaren 28ko EHAA), 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan xedatutakoa betez.

Horregatik guztiagatik, eta sail honek esleituta dituen eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesurako deia egitea, lehiaketa-oposizio bidez.

Deitutako plazak (26 plaza) kidego horrentzat 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartzekoak dira. Eskaintza hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko abenduaren 21ean (erabakiaren II. eranskina), eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren 2021eko abenduaren 28ko 75/2021 Ebazpenaren bidez argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bigarrena.– Aipatutako hautaketa-prozedura arautuko duten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

OINARRIAK

AURKIBIDEA

I. kapitulua. Oinarri orokorrak.

1.– Xedea, araubide juridikoa eta jakinarazteko bideak.

II. kapitulua. Parte hartzeko betekizunak.

2.– Parte hartzeko betekizunak zehaztea.

III. kapitulua. Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa.

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak, eta aurkezteko lekua eta epea.

IV. kapitulua. Onartutako eta baztertutako izangaiak.

4.– Izangaiak onartzea.

V. kapitulua. Hautaketa-organoak.

5.– Hautaketa-organoak: epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak.

VI. kapitulua. Oposizio-fasea.

6.– Oposizio-faseko probaren definizioa eta ezaugarriak.

VII. kapitulua. Lehiaketa-fasea.

7.– Dokumentazioa entregatzea, ofizioz barematzea eta puntuazioak argitaratzea.

VIII. kapitulua. Lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditzea.

8.– Prozesuaren puntuazio orokorra, izangaiak ordenatzea eta oposizio- eta lehiaketa-faseak gainditzea.

9.– Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen zerrendak argitaratzea.

10.– Hautatutako izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

IX. kapitulua. Praktika-fasea.

11.– Praktiketako funtzionario izendatzea.

12.– Praktika-fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.

X. kapitulua. Karrerako funtzionarioak.

13.– Karrerako funtzionario izendatzea.

XI. kapitulua. Datu pertsonalen tratamendua.

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1.– Xedea, araubide juridikoa eta jakinarazteko bideak.

1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko lehiaketa-oposiziorako deialdia egiten da.

1.2.– Eskainitako plazak 26 dira, A1 azpitaldekoak, guztiak ere irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna dutenak eta derrigortasun-data igarota dutenak. Horietatik, txanda irekiko 24 plaza eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandako 2 plaza deitu dira.

1.3.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan eskainitako plazak hutsik geratzen badira, txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie.

1.4.– Hautaketa-prozedura honi arau hauek aplikatuko zaizkio:

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

15/2008 Legea, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sortzekoa.

11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen dueña.

4/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasleen kidegoetan sartzeko, kidego horietara iristeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onartzen duena, eta lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrerako araubide iragan-korra arautzen duena.

889/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, atzerriko hezkuntza-sistemetako unibertsitate-irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituena eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate-titulu ofizialek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten baliokidetasuna ezartzeko prozedura arautzen duena.

263/1998 Dekretua, urriaren 6koa, EGA Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakasleen Hizkuntza Eskakizunen baliokidetzak ezarri, eguneratu eta berresten dituena.

343/2001 Dekretua, abenduaren 11koa, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak eta derrigorrezkotasunak esleitzeko araubide espezifikoak ezartzen dituena.

3/2009 Dekretua, urtarrilaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duena.

297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena.

73/2012 Dekretua, maiatzaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena eta titulu eta ziurtagiriak onartzen dituena.

98/2016 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarena.

187/2017 Dekretua, uztailaren 4koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena.

19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dena.

EDU/3429/2009 Agindua, abenduaren 11koa, Hezkuntzako Ikuskarieren Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko oposizio-faseko gai-zerrenda onartzen duena.

Agindua, 2022ko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duena. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dira, eta titulu eta ziurtagiriak aitortzen dira.

Aplikazio orokorreko gainerako xedapenak eta deialdi honetan xedatutakoa.

II. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

2.– Parte hartzeko betekizunak zehaztea.

2.1.– Hautaketa-prozesuan onartuak izan nahi dutenek betekizun hauek bete beharko dituzte:

2.1.1.– Betekizun orokorrak:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barruan egotea, horietan langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatuetakoko herritarren ezkontideek, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, eta Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den estatuetakoko herritarren ezkontideek eta ondorengoek, dagokion itunak hala aurreikusten duenean, haien nazionalitatea edozein dela ere, betiere ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, eta hauei dagokienez, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan baina gurasoen kargura bizi badira.

b) Nahitaezko erretirorako lege ezarritako gehieneko adinera ez iristea.

c) Eskuratu nahi den kidegoari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioetako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.

e) Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario ez izatea, edo karrerako funtzionario izendatzeko zain ez egotea.

f) Epai irmo bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik (sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa).

2.1.2.– Betekizun espezifikoak:

a) Irakaskuntzako funtzio publikoa osatzen duten kidegoetakoren batekoa izatea, karrerako funtzionario gisa gutxienez zortzi urteko antzinatasuna eta iraupen bereko irakaskuntza-esperientzia karrerako funtzionario gisa.

b) Titulu hauetakoren bat izatea: doktoregoa, unibertsitate-masterra, lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo baliokidea. Baliokidetzat joko dira 3. mailako MECES tituluak.

Titulazioak atzerrian lortu badira, honako betekizun hauetako bat egiaztatu beharko da:

– Tituluaren homologazioa.

– Lanbidean sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortzea.

c) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailaren parekoa), abenduaren 11ko 343/2001 Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.2.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzeko betekizun espezifikoak.

Txanda honetan parte hartu ahal izango dute 2.1 oinarrian deskribatutako betekizunak bete-tzeaz gain, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, organo eskudunek aitortuta, gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna dutenek edo azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako

Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4.2 artikuluan ezarritako baldintzetan desgaitasun hori aitortuta dutenek, betiere bateraezintasunik ez badago Hezkuntza Ikuskaritzari esleitutako eginkizunak betetzearekin, eta kidego horren berezko zereginak betetzeko gaitasun funtzionala badu.

Erreserba hori hautatu beharko da parte hartzeko eskabidean, eta berariaz adierazi beharko da horretarako eskatzen den baldintza betetzen dela. Baldintza hori betetzen badu, organo eskudunek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Hala ere, oposizio-faseko probak egiten diren bitartean epaimahaiak zalantzak baditu izangaiak lortu nahi duen kidegoko funtzionarioek egin ohi dituzten jarduerak egiteko gaitasunari buruz, deialdia egin duen organoari jakinaraziko dio, eta organo horrek dagokion irizpena eskatu ahal izango dio organo eskudunari. Kasu horretan, eta irizpena eman arte, izangaiak baldintzapean jarraitu ahal izango du parte hartzen hautaketa-prozesuan, eta etenda geratuko da prozesuan onartzeari edo baztertzeari buruzko behin betiko ebazpena, harik eta irizpena jaso arte.

Hautaketa-prozedura sarbide libreko izangaien baldintza berberetan egingo da, alde batera utzi gabe denborari eta baliabide materialei buruz eskatu beharreko egokitzapenak, deialdi honen 3.1.2 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Txanda hori aukeratzen dutenek ezin izango dute txanda irekian parte hartu, ezta ondoren txanda aldatu ere.

2.3.– Betekizunak betetzea.

2.1 oinarrian zerrendatutako betekizun guztiak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta mantendu egin beharko dira Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoko karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen den arte, hizkuntza-eskakizunaren betekizuna izan ezik; izan ere, hizkuntza-eskakizunaren eskakizuna, idatziz, gai bat garatzeko oposizio-faseko proba egiten den egunean eduki beharko da.

2.4.– Irakasleen lanpostuen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

2.1.2.c) oinarrian jasotako betekizuna betetzeko (irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin pareka daitekeena), honako titulazio edo ziurtagiri hauetakoren bat eduki behar da:

a) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna.

b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

c) Euskararen Gaitasun Agiria edo 5. maila (urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretua) edo Euskararen C1 Gaitasun Mailaren Ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua), Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia erkidego batzuetako Hizkuntza Eskola Ofizialena.

d) Euskararen C1 maila aurreratuaren ziurtagiria (80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa), Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hizkuntza-eskola ofizialena.

e) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.

- f) HABEren 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).
- g) Osakidetzako 3. hizkuntza-eskakizuna.
- h) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.
- i) Euskaltzaindiaren D ziurtagiria.
- j) Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan jasotako baldintzak betetzen dituzten unibertsitate-tituluak.
- k) Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutako beste titulu eta ziurtagiri batzuk.

III. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak, eta aurkezteko lekua eta epea.

3.1.– Eskabideari buruzko argibideak.

3.1.1.– Parte hartu nahi dutenek Interneteko helbide hauetan eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete beharko dute: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/pertsonal-hezkuntza/> – «2024. EPE. Hezkuntzako ikuskariak» – «Onarpen-eskaera» eta <https://hezigunea.euskadi.eus/> – «EPE 2024. Hezkuntzako ikuskariak – «Onarpen-eskaera»

Eskabidea betetzean, hartu-agiri bat lortuko da (erakunde laguntzailearentzako alea), esleitutako eskabide-zenbakia eta tasa 3.2.a) oinarrian aurreikusitako moduan ordaintzeko behar diren datuak dituen. Era berean, izangaiarentzako frogagiri bat lortuko da (Interesdunarentzako alea).

Eskabidea bete ondoren, hautaketa-prozesuan zehar izangai bakoitzaren espedienteari buruz argitaratzen den informazioa Hezigunearen atarian (<https://hezigunea.euskadi.eus/>) eskuratu ahal izango da, erabiltzailea (NAN) eta pasahitza sartuta.

Hezkuntza Sailak emandako pasahitza duten izangaiek pasahitz horren bidez eskuratuko dute informazio hori. Pasahitza ez badute gogoratzen edo galdu badute, beste bat lortu ahal izango dute Heziguneko atari horretan, «Nire pasahitza ahaztu dut» atala hautatuz.

Pasahitzik ez duten izangaiei kasuan, sistemak pasahitz bat esleituko die prozesuari buruzko informazioa eskuratu ahal izateko, eta sms bidez bidaliko zaie eskabidean adierazitako telefono mugikorrera, eskabidea betetzen amaitu duten unean. Erabiltzailea izangaiaren NANA izango da.

3.1.2.– Desgaitasuna duten izangaiek egoera hori adierazi beharko dute eskabidean, dagoen laukian, bai eta probak egiteko denborari eta baliabide materialei buruz eskatzen duten egokitzapena ere, gainerako parte-hartzaileen baldintza berberetan jardun ahal izan deza-

ten. Egokitapena eskatuz gero, 3.3.1.b) oinarrian adierazitako dokumentua ere aurkeztu beharko da.

3.1.3.– Izangaiek eskabidean «Adingabearen babes» atala bete beharko dute, 2.1.1.f) oinarrian aurreikusitako betekizuna betetzen dutela egiaztatzeko. Atal hori betez, adieraziko da Hezkuntza Sailari baimena ematen zaiola bere izenean Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aipatzen den ziurtagiria eskuratzeko (Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen), hautatuak izanez gero. Baimenik ematen ez badute eta hautatuak badira, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, 10. oinarrian adierazita-koaren arabera.

Hala ere, atal hori ez zaie eskabidean erakutsiko baimen hori lehenago eman dutenei.

3.2.– Tasak.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erki- degoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartu ahal izateko, hautagai bakoitzak dagokion inskripzio-tasa ordaindu beharko du.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko da tasa, eta ordaindu beharreko zenbatekoa epe horretan indarrean dagoen araudiaren arabera dagokiona izango da. Araudi hori 3.5 oinarrian aipatzen den Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpenean zehaz- tuko da. Hori gauzatzeko, bi modalitate hauetako bat aukeratu ahal izango da:

a) Erakunde hauetako edozein sukurtsaletan zuzenean ordaintzea, erakunde laguntzailea- rentzako frogagiria aurkeztuz: Laboral Kutxa, Kutxabank (BBK-Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa), BBVA, Santander, Banco Sabadell-Guipuzcoano, Bankia, La Caixa, Bankoa edo Caja Rural de Navarra. Inprimakiek barra-kodea dutenez, irakurketa optikoa duen kutzazain automatikoaren bidez edo eskuzko datu-bilketaren bidez ordain daiteke.

b) Online ordainketa: Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabidearen bidez, eskabidea betetzean sistemak berak adierazten dituen jarraibideei jarraituz. Ordaintzeko modu horrek alferrikako joan-etorriak eta itxaron-ilarak saihesten ditu, eta eguneko 24 orduetan dago erabilgarri.

Ez da beharrezkoa izango tasa ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztea. Azterketa-esku- bideak ez ordaintzeak edo epez kanpo ordaintzeak izangaia baztertzea ekarriko du. Ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa hamar egun balduneko epean zuzendu ahal izango da, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerranda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Banketxean aurkezteak eta ordaintzeak ez du inola ere esan nahi eskabide oinarri honetan aurreikusitako moduan garaiz eta moduan aurkezteko izapidea ordeztuko denik.

3.3.– Parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

3.3.1.– Parte hartzeko eskabidea aurkezteko ezarritako epe berean, eskabidea aurkeztu ondoren, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Agindu honen I. eranskinean aurreikusitako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa.

Aipatutako I. eranskinean xedatutakoaren arabera ofizioz balora daitezkeen merezimenduak ez dira alegatu edo egiaztatu beharko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude.

Horretarako, eskatzaileek egoera hori egiaztatu beharko dute, erregistro horretan agertzen den informazioa kontsultatuz, helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/> (sartu erabiltzailea (NAN/AIZ) eta «pasahitza») - Eremu pertsonala-Nire laneko datuak, honako atal hauetan:

- Zerbitzu-orria.
- Tituluak, espezialitatea eta ziurtagiriak (atal honetan espediente akademikoaren batez besteko nota ere ager daiteke).
- Zuzendaritza-karguak.

Ikastaroei dagokienez, helbide berean kontsultatu beharko duzu <https://hezigunea.euskadi.eus/> (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – Arlo pertsonala – Nire prestakuntza – Kontsultatu nire ikastaro guztiak.

Pertsonak beste prozesu batzuetan parte hartzeagatik daukana izango da hezigunearen atariko informazioa eskuratzeko erabili beharko den pasahitza (<https://hezigunea.euskadi.eus/>), edo, pasahitzik ez duenarentzat, sistemak eskabidea betetzean sortu duena, 3.1.1 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Ofizioz balora daitezkeen merezimenduak ez badaude langileen erregistroan jasota, hurrengo paragrafoan ofizioz balora ezin daitezkeen merezimenduetarako aurreikusitakoaren arabera alegatu eta egiaztatu beharko dira.

Ofizioz baloratu ezin diren merezimenduak «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeke orria. 2024ko EPE» betez alegatu beharko dira eta egiaztatu egin beharko dira, I. eranskinean horietako bakoitzerako aurreikusitako egiaztagiriak erantsiz aipatutako «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeke orria. 2024ko EPE»-ri.

b) Desgaitasuna duten izangaiek, probak egiteko denborari eta baliabide materialei dagokienez egokitzapenak eskatzen badituzte, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: minusbaliotasun-maila kalifikatzeko organo tekniko eskudunak emandako irizpen tekniko fakultatiboa, aitortutako minusbaliotasun-maila eragin duten urritasun iraunkorrek modu frogagarrian egiaztatuz, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoa deklaritzen duena.

Aurkeztutako dokumentazioa eta aplikatu beharreko araudia ikusita, eskatutako egokitzapenak onartu edo ukatu egingo dira; erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, gehienez ere bi hilabeteko epean, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

3.3.2.– Merezimenduak egiaztatzeke dokumentazioari dagokionez, «Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteke orria. 2024ko EPEa» eta justifikazio-agiriak, 3.4) oinarrian adierazitako lekuetan eta horretarako aurreikusitako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideen arabera, eta entrega amaitu eta erregistratu beharko da, jasota gera dadin. Frogagiri horretan adierazi beharko da zer atal zehaztuetarako entregatuko diren agiriak eta zer justifikazio-agiri aurkezten diren (pdf formatuan).

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentazio guztiarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen

ofiziala aurkeztu beharko da, zinpeko itzultzaileak egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Nolanahi ere, Administrazioak behar diren argibideak eskatu ahal izango dizkie parte hartzen duten langileei zalantzak edo erreklamazioak eragiten dituen dokumentazioari buruz. Halaber, aurkeztutako agirien jatorrizko agiriak eskatu ahal izango zaizkio izangaiari, erkatzeko. Jatorrizko dokumentuaren eta haren kopiaren artean zuzendu ezin den edozein aldeko alegatutako merezimendua baliorik gabe uztea ekarriko du, horrek ekar dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Izangaiak beren gain hartzen dute aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzukizuna. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatu bada, bertan behera geratuko da deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, edozein erantzukizun dagoela ere.

3.4.– Agiriak aurkezteko lekua.

3.3 oinarrian adierazitako dokumentazioa (merezimenduak eta egokitzapenak) Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan entregatu beharko da:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak» edo <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/pertsonal-hezkuntza/> – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak». Ondoren, dagokion atalean sartu buharro da, kasuaren arabera:

- «Merezimenduak entregatzea».
- «Probarako egokitzapenak. Desgaitasuna».

edo, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan oro har ezarritako bideen bitartez.

3.5.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez (EHAA n argitaratuko da), eskabideak aurkezteko epea adieraziko da, baina epe hori ez da inola ere 2025eko otsaila baino lehen hasiko. Epe berean, eskabidea aurkeztu ondoren, 3.3.1 oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

IV. KAPITULUA

ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIAK

4.– Izangaiak onartzea.

4.1.– Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariak ebazpena emango du, gehienez ere hilabeteko epean. Ebazpen horretan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuz, eta zerrenda hori non erakutsiko den adieraziz.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak

langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» eta <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> («2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak»).

Zerrendan honako datu hauek jasoko dira: izen-abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo antzekoa atzerriko nazionalitatea duten pertsonentzat, izangai bakoitzak parte hartzen duen txanda eta, baztertuz gero, bazterketaren arrazoia.

4.2.– Erreklamazioak.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, hamar egun baliouduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa. Halaber, beren datu pertsonalak jasotzean akatsak atzeman dituztenek epe horretan bertan adierazi ahal izango dute.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta 4.1 oinarrian aipatutako ebazpenean adierazitako lekuetan aurkeztuko dira.

Interesdunak ez badu adierazitako epean zuzentzen baztertzeko arrazoia izan den akatsa, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.3.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Aurkeztutako erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez onartu edo ezetsiko dira, eta ebazpen horretan onartutzat emango da onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Ebazpena eta behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarako adierazitako leku berberetan argitaratuko dira.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.4.– Probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartutako pertsona gisa agertzen direnak, bai eta, baztertuta egonik, deitutako ekitaldian ebatzi gabe dagoen errekurtsua jarri izana justifikatzen dutenak ere; azken kasu horretan, izangaiak egindako jarduketak ondorioz gabe geratuko dira, baldin eta berariazko edo ustezko ebazpena errekurtsua ezesteko bada.

4.5.– Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Beraz, onartutako pertsonak prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 10. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta azterketa medikoa gainditu beharko da.

V. KAPITULUA

HAUTAKETA-ORGANOAK

5.– Hautaketa-organoak: epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak.

5.1.– Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez horretarako izendatutako epaimahaiak hautatuko ditu hautaketa-prozesu honetan parte hartuko dutenak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere bi hilabeteko epean, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera.

Epaimahaian parte hartzea nahitaezkoa da, oinarri honetan eta 5.5. oinarrian abstentzio- edo errekusazio-arrazoiei buruz aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Organoko kide ez izateko iruzurrezko jarduerak eginez gero, edo kideak bilkuretara, eraketa-bilkurara barne, arrazoirik gabe ez bertaratuz gero, presidenteak deialdia egin ondoren, edo prozesuaren garapenean dituzten betebeharrak ez betez gero, dagokion erantzukizuna eskatuko zaie, eta, hala badagokio, funtzio publikoari aplikatu beharreko diziiplina-araubidea aplikatuko zaie.

Jarduteko prozedurak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa beteko du une oro.

Ez dute parte hartzeko lekapenik izango, eta 5.2 oinarrian aurreikusitako zozketan ez dira sartuko, Hezkuntza Ikuskaritzan erantzukizuneko postu hauek betetzen ari diren pertsonak: ikuskaritza nagusia, lurraldeko eta zonako burutzak.

Halaber, epaimahaian parte hartzetik salbuetsita egongo dira, eta, beraz, zozketan ez dira kontuan hartuko, hautaketa-prozeduran zehar egoera hauetan dauden karrerako funtzionarioak:

- a) Kidegoan zerbitzu aktiboa ez den beste administrazio-egoera batean.
- b) Irakasle funtzionarioei irekita dagoen Administrazio Orokorreko lanpostuan jardutea.
- c) Ikasturte osorako ordaindu gabeko baimena.
- d) Partzialki ordaindutako baimena.
- e) Lanaldia murrizteko baimena.
- f) Lanera joateko erabateko liberazioa dakarren ordezkari-tza sindikaleko eginkizunak betetzeko lizentzia.
- g) Amatasunagatiko edo aitatasunagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko lizentzia, edo edoskitze-aldia metatzeagatiko lizentzia.
- h) Haurdunaldiko arriskuagatiko lizentzia.
- i) Ezkontzagatiko lizentzia, baldin eta lizentzia hori hartzeko datak eta oposizio-fasea oso-osorik bat badatoz.
- j) Aldi baterako ezintasunagatiko lizentzia, iraupen luzekoa. Noizbehinkako gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasunari dagokionez, dagokion medikuak eman beharko du, baina horrek ez du salbuesten epaimahaian parte hartu beharretik. Egoera horretan dagoen funtzionarioa epaimahaiko titular edo ordezkari izendatu badute, eta hautaketa-prozesua hasi baino lehen lortzen badu alta, epaimahaian sartu beharko du.

Adierazitako kasuren batean dauden pertsonak izendatu badira zozketan, eragindako pertsonak salbuespena eskatuko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bost egun balioduneko epean, hautaketa-organoen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.2.– Epaimahaiaren osaera eta izendapena.

Epaimahaiak bost kide izango ditu: epaimahaiburu bat eta lau epaimahaikide. Bostek jarduneko karrerako funtzionarioak izan beharko dute irakasle funtzionarioen kidegoetan, edo Hezkuntzako ikuskariak, eta Ikuskaritzako kidegoari dagokion sailkapen-talde bereko edo handiagoko kidegoak izango dira, eta ordezkaritza handiena kidego horri dagokio.

Hezkuntzako sailburuak askatasunez izendatuko du presidentea. Presidentetza, lehentasunez, hezkuntzako ikuskarien kidegoko karrerako funtzionarioei esleituko zaie, edo, hala badagokio, ikuskatzaileen kidegoko destino-osagarri berdina edo handiagoa duten unibertsitateko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioei.

Bokal izendatu behar diren lau pertsonak zozketa bidez izendatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarien Kidegoan jardunean dauden karrerako funtzionarioen artean. Zozketa Lakua-2 eraikinean egingo da (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), eta zozketa egin baino lehen iragarriko da eguna, Interneteko helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-pertsonala/> – «2024. Hezkuntzako ikuskariak».

Hezkuntzako Ikuskaritza antolatzen den hiru lurralde historikoetako bokalen ordezkaritza orekatua bermatuko da; horrela, Bizkaiko lurraldeko 2 bokal, Arabako lurraldeko bokal 1 eta Gipuzkoako lurraldeko bokal 1 zozkatuko dira.

Epaimahaikideen artean kidegoan antzintasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, epaimahaiak bestela erabaki ezean.

Epaimahaia izendatzerakoan, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan Auzitegiaren hizkuntza-gaitasuna bermatu beharko da.

Epaimahaiko kide titular bakoitzeko, prozedura bera erabiliz, ordezeko kide bat izendatuko da.

5.3.– Hautaketa-batzordeak.

Aurkeztutako eskabideen kopurua dela-eta epaimahai bat baino gehiago eratu behar bada, hautaketa-batzorde bat eratuko da.

Batzorde hori epaimahaiburuek osatuko dute, bost gutxienez, eta hala ez bada, epaimahaikideek osatuko dute, harik eta osatu arte, honela:

1) Lau epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiko burua.

Kideak: 2., 3. eta 4. epaimahaietako presidentek eta 1. epaimahaiko idazkaria.

2) Hiru epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2. eta 3. epaimahaietako presidentek eta 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak.

3) Bi epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiko burua.

Epaimahaikideak: 2. epaimahaiburua, 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak eta 1. epaimahaiko 1. epaimahaikidea.

Batzordeburu arituko da epaimahaiburua baino txikiagoa den epaimahaiburua.

Batzordeko kideen artean kidegoan antzintasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, hautaketa-batzordeak bestela erabaki ezean.

Epaimahai bakarra izendatzen bada, horrek ere hautaketa-batzorde gisa jardungo du ondorio guztietarako.

5.4.– Epaimahaikideak abstenitzea eta errefusatzea.

5.4.1.– Abstentzia.

Hautaketa-organoetako kideek ezin izango dute esku hartu, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badaude, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko hautaketa-probetarako izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte.

Mahaiburuek berariazko adierazpena eskatuko diete hautaketa-organoetako kideei, aurreko paragrafoan aurreikusitako egoeretan ez daudela adierazteko.

5.4.2.– Errefusatzea.

Izangaiak hautaketa-organoetako kideak ezetsi ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen direnean.

5.5.– Epaimahaia eratzea.

Epaimahaiburuak deialdia egin ondoren, epaimahaia eratuko da, eta, ahal dela, izendatutako kide guztiak, titularrak zein ordezkioak, bertan direla. Batzordea eratzeko, batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta, gutxienez, kideen erdiak aurrez aurre bertaratu beharko dira (edo bitarteko telematikoen bidez).

Behin epaimahaia eratuta, balio osoz jardun ahal izateko, epaimahaiburua eta idazkaria ere bertan egon beharko dira, edo, bestela, haien ordezkioak, eta, gutxienez, kideen erdiak.

5.6.– Hautaketa-organoen eginkizunak.

5.6.1.– Epaimahaiari dagokio:

- a) Hautaketa-prozesuaren faseak garatzea, deialdi honetan xedatutakoaren arabera.
- b) Oposizio-faseko probaren kalifikazioa, III. eranskinean adierazitako balorazio-irizpideen arabera.
- c) I. eranskineko IV.2 eta IV.4.3 ataletako lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa.
- d) Baztertzeko proposamena, zeina Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari igorriko baitzaio, baldin eta jakiten badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdi hone-

tan eskatutako betekizun guztiak. Kanporatu aurretik, entzunaldia emango zaio, eta jakinaraziko zaio, halaber, zer zehaztasun falta edo faltasutasun adierazi dituen hautaketa-probetan parte hartzeko eskabidean, bidezkoak diren ondoreetarako. Kasu horretan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena eman arte, hautaketa-prozesuan modu baldintzatuan parte hartzen jarraitu ahal izango du (ad cautelam). Baztertzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

e) Izangaiak hautaketa-prozeduratik kanpo uztea, baldin eta, ariketak egin bitartean, proba normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko edozein jarduketa egiten badute, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, epaimahaikideen jarraibideak betetzen ez badituzte edo portaera desegokiak badituzte (liskarrak eragiten badituzte, bortizki, oldarkor edo larderiaz jarduten badute...). Epaimahaiburuak horren berri emango dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, eta dagokion bilkura-aktan jasoko du. Hautaketa-prozesutik baztertzeko epaimahaiaren erabakiaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

f) Hautaketa-batzordeei agindutako eginkizunak, halakorik ez badago.

5.6.2.– Hautaketa-batzordeari dagokio:

a) Epaimahaiak koordinatzea.

b) Epaimahaien jarduteko irizpideak zehaztea eta irizpideok homogeneousatzea.

c) Kasu praktikoaren edukia zehazteko modua zehaztea, deialdi honen III. eranskinean zehaztutako premisak kontuan hartuta.

d) Lehiaketa-faseko puntuazioak epaimahaiak oposizio-fasean esleitutakoei gehitzea, izangaiak ordenatzea eta lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditu dituztenak deklaratzeko.

e) Bi faseak gainditu dituzten izangaien zerrendak egitea eta onartzea, eta deialdia egin duen organoari zerrenda horiek helaraztea.

Hautaketa-prozeduran zehar, epaimahaiak edo, hala badagokio, hautaketa-batzordeak arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, baita aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den ere.

5.7.– Epaimahaiak eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako administrazio-unitateek merezimenduak barematzea.

Epaimahaiak eskuordetuta, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako administrazio-unitateek esleituko dute izangai bakoitzari merezimenduen arabera dagokion puntuazioa, I. eranskineko IV.2 eta IV.4.3 apartatuetako merezimenduak izan ezik, horiek epaimahaiak berak baloratuko baititu.

5.8.– Aholkulariak eta laguntza-langileak.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak eta laguntzaileak bere lanetan hastea proposa dezake. Lehenengoan eginkizuna izango da epaimahaikideei aholkularitza ematea ezagutzak eta merezimenduak ebaluatzeko. Laguntza-langileek epaimahaiarekin lankidetzan jardungo dute, epaimahaiak esleitzen dizkieten laguntza-lan teknikoak eginez. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko ditu.

Aholkulariek zein laguntzaileek izendatuta dauden eginkizunari dagokion gaitasun profesionala izan beharko dute, eta dagozkien eskumenak gauzatzera mugatuko dira beren jarduerak.

5.9.– Zerbitzuagatiko kalte-ordaina.

Hautaketa-organoetako kideek eta hautaketa-proba horietan jarduten duten aholkulariek eta laguntzaileek zerbitzuagatiko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute, unean-unean aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera.

VI. KAPITULUA

OPOSIZIO-FASEA

6.– Oposizio-faseko probaren definizioa eta ezaugarriak.

6.1.– Probaren definizioa eta helburuak.

Oposizio-fasean, honako hauek baloratuko dira: lidergo pedagogikorako gaitasuna eta izangaien ikuskaritza-funtzioaren berezko gaitasunen ebaluazioa, baita funtzio hori betetzeko ezagutza pedagogikoak, administraziokoak eta hezkuntza-legeriakoak ere.

6.2.– Gai-zerrenda.

Oposizio-faseko proba prestatzeko gai-zerrenda agindu honen II. eranskinean dago.

Gai-zerrenda horrek bi zati ditu:

A zatia: Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren oposizio-faseko gai-zerrenda onartzen duen abenduaren 11ko EDU/3429/2009 Aginduaren I. eranskineko gaiak barne hartzen ditu.

B zatia. Abenduaren 11ko EDU/3429/2009 Aginduaren II. eranskinean jasotako gaiak jasotzen ditu, bai eta gehitu direnak, Hezkuntzako Ikuskaritzaren egitura eta funtzionamenduari eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-antolamenduari erlazionatutakoak.

6.3.– Probaren deskribapena eta osaera.

Probak hiru zati izango ditu. Zati bakoitza baztertzailea izango da, eta honako hauek beteko dituzte:

I. zatia: idatziz garatu beharko da gai-zerrendaren A zatiari buruzko gai bat. Epaimahaiak zozketa bidez ateratako bi gairen artean aukeratuko du izangai bakoitzak.

Probaren zati hori ekitaldi kolektibo batean egingo da, eta izangai guztiei deituko zaie. Gehienez ere hiru ordu izango dira egiteko, eta ezingo da material osagarriak erabili.

II. zatia: Hezkuntza Ikuskaritzak jarduteko teknika egokiei buruzko kasu praktikoa bat aztertuko da idatziz, epaimahaiak proposatuko.

Probaren zati hori ekitaldi kolektibo batean egingo da, eta probaren I. zatia gainditu duten izangai guztiei deituko zaie. Gehienez ere hiru ordu izango dira proba horiek egiteko. Probaren II. zatia egiteko, izangaiek berriazko dokumentazioa erabili ahal izango dute, inprimatuta, epaimahaiak baimentzen duena.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 10.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu idatzizko ariketak (probaren I. eta II. zatiak) modu anonimoan zuzendu eta baloratuko direla bermatzeko. Ondorioz, baliogabetu egingo da izangaia identifika dezaketen izenak, markak edo seinaleak dituen idatzizko ariketa.

III. zatia: Probaren zati honetarako deia egingo zaie probaren I. eta II. zatiak gainditu dituzten izangaiei. III. zatian, ahoz azalduko da, jendaurrean, gai-zerrendako B zatiari buruzko gai bat. Epaimahaiak zozketa bidez ateratako bi gairen artetik aukeratuko du izangai bakoitzak. Atal hau euskaraz egin beharko da nahitaez, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Izangaiek bi ordu izango dituzte prestatzeko, eta egokitzat jotzen duten material osagarria erabili ahal izango dute, beraiek aurkeztu beharko dutena, bai eta gidoi bat ere. Gidoi hori Epaimahaiari emango diote beren esku-hartzea amaitzean. Azalpena gehienez berrogeita bost minutukoa izango da, eta, amaitu ondoren, epaimahaiak galderak edo jarduketak egin ahal izango ditu azalpenaren edukari buruz. Eztabaida hori ezin izango da hamabost minutik gorakoa izan.

6.4.– Oposizio-fasearen garapena.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez zehaztuko da epaimahaiaren egoitza. Ebazpen hori Interneteko helbide hauetan argitaratuko da: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE». Hezkuntzako ikuskariak edo <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/pertsonal-hezkuntza/> – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak».

Epaimahaiak probaren I. eta II. zatiak egiteko eguna eta lekua, eta izangaiei probaren III. zatia egiteko zitazioa egingo zaiela iragarriko du, bai eta egokitzat jotzen diren gai guztiak ere, epaimahaiaren egoitzako iragarki-taulan eta epaimahaiaren iragarki-taulan. Azken hori Interneteko helbide honetan kontsultatu ahal izango da: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Langileekin egin beharreko izapideak» – «Administrazio-izapideak» – EPE 2024. Hezkuntzako ikuskariak – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – «Epaimahaiak» – «Iragarki-taula».

Ariketa kolektiboetarako (I. eta II. zatiak) deitutako pertsonak azterketaren lekuan aurkeztu beharko dira, ezarritako orduan eta egunean. Banakako ariketaren kasuan (ahozko azalpena - III. zatia), egun bakoitzerako deitutakoak Epaimahaiak jardunak hasteko ordu gisa ezarritako orduan egon beharko dira.

Epaimahaiaren aurrean ahozko azalpenerako (III. zatia) jarduketak hasi ondoren, izangaien hurrengo deialdiak epaimahaiaren egoitzako iragarki-taulan ere argitaratu beharko dira, hasi baino hogeita lau ordu lehenago gutxienez. Era berean, epaimahaiko iragarki-taulan argitaratuko dira, informazio-ondorioetarako, Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – «Epaimahaiak» – «Iragarki-taula».

Banakako proban (probaren III. zatia), jarduteko ordena alfabetikoki hasiko da abizena P letratik hasten den lehenengo izangaiarekin, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko irailaren 29ko Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2024-2025 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa

zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, bai eta ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere. Lehen abizena letra horrekin hasten den hautagairik ez badago, hurrengo letrarekin edo letrekin hasiko dute jarduteko hurrenkera. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die izangaiei beren nortasuna egiazta dezatela. Horretarako, NANA, jatorrizko herrialdeko antzeko agiria, pasaportea edo titularraren argazkia duen gidabaimena aurkeztu beharko dute.

6.5.– Oposizio-faseko probaren kalifikazioa.

6.5.1.– Probaren hiru zatietako bakoitzaren kalifikazioa 0 eta 10 puntu artekoa izango da.

Epaimahaiko kide guztien irizpideak bateratzeko eta ebaluazioa ahalik eta objektiboena izateko, ebaluatu beharreko kompetentzia bakoitzerako beharrezkoak diren errubrikak erabiliko dira.

Izangai bakoitzak ariketa bakoitzean lortutako puntuazioa kalkulatzeko, epaimahaian dauden kide guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa lortuko da. Epaimahaiko kideek emandako puntuazioen artean hiru osoko edo gehiagoko aldea badago, automatikoki baztertuko dira gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak, eta batez besteko puntuazioa gainerako kalifikazioen artean egongo da.

Proba gainditzeko, izangaiek 5 puntu lortu beharko dituzte gutxienez zati bakoitzean. Lehia-keta-fasean 5 puntu edo gehiago lortu dituzten pertsonak baino ez dira sartuko.

Oposizio-faseko kalifikazio globala lortzeko, I. eta III. zatiek azken kalifikazioaren % 30eko pisua izango dute, eta II. zatiak, berriz, % 40koa.

6.5.2.– Oposizio-fasean lortutako kalifikazioak argitaratzea.

Probaren hiru zatietako bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak izangaiek lortutako puntuazioen zerrenda erakutsiko du egoitza duen ikastetxean, bai eta epaimahaiaren iragarki-taulan ere. Taula hori Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide honetan kontsultatu ahal izango da: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – «Epaimahaiak» – «Iragarki-taula».

Puntuazio horien aurka, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote dagokion epaimahaiari, hiru egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta, gehienez ere, berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, epaimahaiak behin betiko notak argitaratuko ditu, adierazitako lekuetan. Puntuazioak aldatu ez badira, erreklamazioak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez, izangaiek oposizio-fasean lortutako kalifikazio orokorrak argitaratuko dira, probaren zati guztiak gainditu direnean.

Ebazpen horren aurka, ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, dagokion errekurtsua jarri beharko dute deialdi honen 9. oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren aurka.

VII. KAPITULUA

LEHIAKETA-FASEA

7.– Dokumentazioa entregatzea, ofizios barematzea eta puntuazioak argitaratzea.

7.1.– Lehiaketa-fasean, prozesuan parte hartzen dutenek aurkeztutako merezimenduak baloratuko dira, deialdi honen I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

Izangai bakoitzak lehiaketa-fasean bere merezimenduak baloratzeagatik lor dezakeen gehieneko puntuazioa 10 puntukoa da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte burututako merezimenduak baino ez dira barematuko.

7.2.– Lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen publizitatea.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez, lehiaketa-fasean izangaiek lortutako puntuazioa argitaratuko da.

Behin-behineko zerrenda Interneteko helbide hauetan argitaratuko da: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak» edo <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak»).

Interesdunek erreklamazio-idazkia aurkeztu ahal izango diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, ebazpena jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik hamar egun balioduneko epean.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, lehiaketa-fasean lortutako behin betiko puntuazioak behin-behineko zerrenda bezala argitaratuko dira.

Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen prozedurari; horren aurka, ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, dagokion errekurtsioa jarri beharko dute deialdi honen 9. oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren aurka.

7.3.– Oposizio-fasea gainditu duten izangaien merezimenduen puntuazioak barematu eta argitaratuko dira.

7.4.– Lehiaketa-faseko kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten izangaiei soilik aplikatuko zaie.

VIII. KAPITULUA

LEHIAKETA- ETA OPOSIZIO-FASEAK GAINDITZEA

8.– Prozesuaren puntuazio orokorra, izangaiek ordenatzea eta oposizio- eta lehiaketa-faseak gainditzea.

8.1.– Prozesuaren puntuazio orokorra.

Parte-hartzaile bakoitzaren puntuazio orokorra kalkulatzeko, oposizio-fasean lortutako puntuazioa bi herenetan, eta lehiaketa-fasekoa heren batean haztatuko dira.

8.2.– Izangaiak ordenatzea.

8.2.1.– Epaimahaiak, fase bakoitzeko puntuazioak lortu eta haztatu ondoren, lehiaketa-faseko puntuazioak gehituko dizkie oposizio-fasean lortutako puntuazioei, azken fase horretan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaien kasuan. Guztiak batera agertuko dira, bai txanda irekian bai desgaituentzako erreserban.

8.2.2.– Ordenatzean berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauei jarraituz ebatziko dira, hurrenez hurren:

- a) Puntuazio handiena oposizio-fasean.
- b) Puntuazio handiena oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi honetan ariketa horiek agertzen diren hurrenkeraren arabera.
- c) Puntuazio handiena lehiaketa-faseko merezimenduen baremoko ataletan, deialdi honetan atal horiek agertzen diren hurrenkeraren arabera.
- d) Puntuazio handiena lehiaketa-faseko merezimenduen baremoko azpiataletan, deialdi honetan azpiatal horiek agertzen diren hurrenkeraren arabera.
- e) Antzintasun handiena jatorrizko irakasleen kidegoan, karrerako, bitarteko edo praktiketako funtzionario gisa.
- f) Berdinketak jarraitzen badu, gaikuntza-proba osagarri bat egitea izango da azken irizpidea. Proba horretan, epaimahaiak planteatutako galderei erantzun beharko zaie, gai-zerrendarekin erlazionatuta.

8.3.– Hautaketa-prozesua gainditzea.

8.3.1.– Praktika-fasera pasatzeko hautatuko dira, puntuazio orokorraren arabera ordenatu ondoren, parte hartzen duten sarbide-txandan deitutako plaza kopuru osoaren berdina edo txikiagoa duten hautagaiak.

8.3.2.– Epaimahaiak hautatutako izangaien behin-behineko zerrenda egingo du, eta, bertan, batera agertuko dira desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan eta txanda irekian parte hartu dutenak. Zerrenda Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari helaraziko zaio.

Sarrera librearen zerrenda egitean, epaimahaiak txanda horri hasiera batean esleitutako plazei gehituko dizkie desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan bete gabe geratu diren guztiak.

Epaimahaiak ezingo du inola ere adierazi deitutako plazak baino hautagai gehiagok gainditu dutenik hautaketa-prozesua.

9.– Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen zerrendak argitaratzea.

9.1.– Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du hautatutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzeko, eta zerrenda hori non erakutsiko den adieraziko du.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Arlo pertsonala» – «Izapidak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak»

eta <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («2024ko EPE. Hezkuntzako ikuskariak»).

Aipatutako ebazpenaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, zerrenda horietan egon litezkeen akatsengatik, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi egun balioduneko epean.

9.2.– Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da, Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez.

Agindua eta hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) eta <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («EPE 2024. Hezkuntzako ikuskariak»).

Agindu horren aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerrenda horren ale bat deialdia egin duen organoari helaraziko zaio, eta prozesuaren garapenari dagokion gainerako dokumentazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren zainzapean geratuko da.

9.3.– Epaimahaiak, hautatutako izangaien zerrendarekin batera, hautatutako ordezkoi izangaien zerrenda ordenatua ere igorriko du, kopuru berean, hautatutako izangairen batek izaera hori galtzen duenerako, praktiketako funtzionarioak izendatu aurretik Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan aurkeztutako hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egiteagatik, egon daitezkeen errekurtsuak baiesteagatik edo deialdian eskatutako betekizunak ez beteagatik, aurkeztu beharreko dokumentazioa berrikusi ondoren edo eginkizunak betetzeko eskatzen den gaitasun fisikoa eta psikikoa ez izateagatik.

Aipatutako hiru kasuetako bat gertatuz gero, ordezkoen zerrendan agertzen den puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria argitaratuko da, eta aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazak adina izangai hautatuko dira.

9.4.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, eta errekurtsua baiestearen edo epaia betearaztearen ondorioz praktika-fasera igartzeko beste pertsona bat izendatu behar bada, hautatutako pertsonaren izendapenak ez du eraginik izango epaimahaiak izendatutako izangai hautatuen behin betiko zerrendan.

9.5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 25.2.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi espezifiko bat gaituko da hautatutako ordezkoi izangaiak argitaratu ondoren, pertsona horiek aukera izan dezaten Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan irakasleen ordezkogaien zerrenda espezifikoan sartzeko. Aukera hori egiten dutenek zerrenda bat osatuko dute, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

10.– Hautatutako izangaiak egin beharreko jarduketak.

10.1.– Dokumentuak aurkeztea.

Hogei egun naturaleko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, per-

tsona horiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» ereduarekin batera:

a) Indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionala, non eta ez duten berriazko baimena ematen Hezkuntza Sailak nortasun-datuak kontsultatzeko, nortasun-datuak egiaztatzeke sistema elektronikoen bidez.

Espanian bizi diren atzerriko izangaiek nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute, bai eta Europar Batasuneko egoiliarraren indarreko txartela edo Europar Batasuneko egoiliarraren senidearena ere, edo, hala badagokio, Europar Batasuneko egoiliarraren edo mugako langile komunitarioaren aldi baterako indarreko txartela. Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko nazionalitatea duten izangaiek, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko nazionalitatea dutenek, Espainian bizi ez badira, atzerrian bizi direlako edo Espainian egonaldi-erregimenean daudelako, nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute. Hautagai atzerritarrak Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalen ezkontideak badira, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikagarri zaien estaturen batekoak, eta haien ondorengoak eta ezkontidearenak, zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak, mendekoak badira, pasaportearen edo bisaren fotokopia aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, txartela eskatu izanaren edo bisaren eta txartelaren salbuespena eskatu izanaren frogagiria. Dokumentu horiek eskatu ez badira, honako hauek aurkeztu beharko dira: agintaritza eskudunek emandako dokumentuak, ahaidetasun-lotura egiaztatzen dutenak, eta Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonaren edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarraren zinpeko aitortpena edo hitzematea, lotura hori duen pertsonarekin, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, hala badagokio, izangaia bere kargura edo kargura dagoela egiaztatzen duena.

b) Zinpeko aitortpena edo hitzematea, honako hauek adieraziz: ez dutela diziplina-espediente baten bidez kendu inongo herri-administrazioaren zerbitzutik, ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko, eta ez dagoela Herri Administrazioetan diharduten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek beren estatuan funtzio publikoan sartzearagozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute.

c) Kidegoan sartzeko eskatzen den titulua edo ikasketak lortzeko ikasketa guztiak gainditu izana eta ikasketa horiek egiteko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Ez dute aurkeztu beharko hautaketa-prozesuan parte hartu dutenek edo kontsultarako berriazko baimena ematen dutenek. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, lanbide arautuan sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortzen duen agiria edo homologazioa erantsi beharko da.

d) Irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzen duten tituluak edo ziurtagiriak, 2.4. oinarriko a), b), c), d), e), f), g) eta h) letretan aipatutakoak izan ezik, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude. Era berean, ez da beharrezkoa izango aurretik aurkeztutako

titulu edo ziurtagiririk aurkeztea, baldin eta adierazten bada zein unetan, prozeduratan eta zein organotan aurkeztu zen. Prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du Hezkuntza Sailak datu horiek kontsultatu ahal izango dituela Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, parte-hartzaileak berariaz aurka egiten ez badio.

e) Desgaitasuna duen pertsonaren izaera baliatu duenak organo eskudunen ziurtagiria aurkeztu beharko du, non jasoko baita % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa duela, edo, bestela, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, zeinaren bidez deklaritzen baita irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoa.

Ez ditu aurkeztu beharko eskabideak aurkezteko hasierako epean aurkeztu dituenak.

f) Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik – sexu-eraketa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa barne – epai irmo bidez kondenatu ez izanaren ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emana. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko datu hori Hezkuntza Sailak kontsultatzeko berariazko baimena eman dutenek, elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bidez, 3.1.3 oinarrian adierazitakoaren arabera. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak jatorrizko herrialdeetan kondenarik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, aipatutako delituen izaera bereko delituei dagokienez.

10.2.– Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentazio guztiarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da, zinpeko itzultzaileak egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

10.3.– Lortu nahi den kidegoko funtzioak betetzeko gaitasun funtzionala zehazteko, eta hautatutako pertsonen irakaskuntza-funtzioak eraginkortasunez eta autonomiaz bete ahal izango dituztela egiaztatzeko, Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuan osasun-azterketa egiteko deituko zaie. Gaitasuna hori zehazteko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balorazio profesionalerako indarreko gida hartuko da erreferentziatzat, lanpostuen zereginak eta eskakizun psikofisikoak definitzen dituena. Azterketa horren emaitza «gai» edo «ez gai» izango da, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari helaraziko zaio. Justifikaziorik gabe osasun-azterketara joaten ez badira, ez-gaitzat joko dira. Justifikatutako arrazoirik badago, beste egun batean joan beharko da osasun-azterketara, eta ez dago justifikaziorik proba behin betiko salbuesteko.

10.4.– Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez duten pertsonen, edo dokumentazio hori aztertuta 2. oinarrian adierazitako betekizunen bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidean faltsukeriak egiteagatik izan dezaketen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko dituzte azterketa medikoan ez-gaitzat jotzen direnak. Kasu horietan, Hezkuntzako sailburuak dagokion agindua emango du karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu direla adierazteko. Ezinbesteko kasuren batean dagoenak berehala jakinarazi beharko dio Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, idatziz, zuzendaritza horrek balora dezan. Kode Zibilaren 1105. artikulua arabera, ezinbesteko kasuak dira aurreikusi ezin diren egoerak edo, aurreikusteko modukoak izan arren, saihetsezinak direnak. Nolanahi ere, ezinbesteko kasuak ez du salbuetsiko betekizunak betetzetik, baina, hala badagokio, aurkezteko aurreikusitako epe orokorra gainditu ahal izango da.

IX. KAPITULUA

PRAKTIKA-FASEA

11.– Praktiketako funtzionario izendatzea.

11.1.– Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko betekizun orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten izangai hautatuak praktiketako funtzionario izendatuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Izangai horiek esleitutako destinoetan egin beharko dituzte praktikak, eta destino horietan sartzen ez direnek hautaketa-prozedurari uko egiten diotela ulertuko da.

11.2.– Praktikak egiteko atzerapena lortzeak ez du aldaketarik eragingo gainerako izangaiei esleitutako lanpostuetan, ez eta hautatutako pertsonen zerrendan ere.

11.3.– Praktiketako funtzionarioak izendatzen direnetik karrerako funtzionarioak izendatzen diren arte, araubide juridiko-administratiboa praktiketako funtzionarioena izango da.

11.4.– Praktikaldia egiteko lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira. Praktiketako funtzionario izendatu diren izangai hautatuek nahitaez parte hartu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntzako ikuskatzaile gisa duten behin betiko lehen destinoa lortu arte deitzen diren lanpostuak betetzeko lehiaketetan.

11.5.– Destinoak esleitzeko, hautaketa-prozeduran lortutako puntuak hartuko dira kontuan.

12.– Praktika-fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.

12.1.– Praktika-fasearen helburua da hautatutako izangaiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoari esleitutako eginkizunak betetzeko prestakuntza egokia dutela egiaztatzea eta bermatzea.

Praktikaldiaren iraupena ikasturte batekoa izango da, eta ebaluatu ahal izango dira, sei hilabeteko benetako zerbitzuak egin ondoren. Eguneko lanaldia, gutxienez, bi herena izango da.

Salbuespenezko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, seme edo alabaren jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko baimenean edo ezinbesteko beste kasu batean badago (salbuespenezko egoera aurreikusi gabea eta saihetsezina), eta, horren ondorioz, ezin badu praktika-fasea normaltasunez egin (kalifikazio-batzordeak baloratuko du), praktikaldiak gutxienez hiruhileko bat baino gehiago iraun ahal izango du, eta iraupen horrek jarraitua izan beharko du. Salbuespenezko kasu horietan, gutxienez 2/3ko lanaldia egin beharko da egunean.

Bestalde, praktika-fasean hastea ikasturte akademiko batez atzeratu behar dutenek, aurreko paragrafoan adierazitako egoeretako batean daudelako eta horrek praktika-fasea garatzea eragozten dielako, idatziz eskatu beharko diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bost egun balioduneko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dagozkion frogagirikin batera. Zuzendaritza horrek dagokion ebazpena emango du eskaera onartuz edo ukatuz. Atzerapen-epea igarota, praktikaldian hasten ez denak karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

12.2.– Praktika-fasearen garapena Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez arautuko da, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eta Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Aukeratutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo ikasturtearen hasierarekin hasiko da fase hau.

12.3.– Praktika-fasea amaitzean, izangai bakoitza «gai» edo «ez gai» gisa ebaluatuko da.

Ez-gaitzat jotzen diren izangaiak hurrengo promozioko hautatutakoekin hasi ahal izango dira lanean, praktika-fasea behin bakarrik errepikatzeko. Kasu horretan, sartuko den sustapeneko azken hautatuaren hurrengo tokia beteko dute.

Hurrengo urterako ez bada deitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko hautaketa-prozesurik, praktika-fasea egingo dute ez-gaitzat jo zituzten ikasturtearen hurrengo ikasturtean.

Lanean hasten ez direnek edo bigarren ez-gai deklaratzeko direnek galdu egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak. Deialdia egin duen agintaritzak deklaratu du eskubide horiek galdu direla, ebazpen arrazoitu baten bidez.

X. KAPITULUA

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

13.– Karrerako funtzionario izendatzea.

Praktika-fasea amaitu ondoren, eta hautatutako pertsonen deialdi honetan ezarritako parte hartzeko betekizun orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela eta praktika-fase hori gainditu dutela egiaztatu ondoren, Hezkuntzako sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionarioen izendapena. Praktikaldia gainditu eta hurrengo ikasturtea hasten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak izendapenak.

XI. KAPITULUA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

14.– Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek «Hautaketa- eta hornikuntza-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueraren Tratamendu Jardueren Erregistroan tratatu eta sartuko dira (Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza da erregistro horren arduraduna), prozedura horren kudeaketaren ondoriozko administrazio-izapideak egiteko eta aplikatu beharreko lege-betebeharrak betetzeko behar den tratamendua emateko.

Hala badagokio, datu-lagapenaren hartzaile izan daitezke Estatuko Administrazioako organo eskudunak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk, sindikatuak eta langileen batzordeak.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dute, bai eta webgune honetan kontsulta daitezkeen beste eskubide batzuk ere: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/es/transparencia/048000-cap2-es.shtml

Bai datu pertsonalen tratamendua, bai datu horiek hirugarrenei lagatzea eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuen aurka egiteko eta datu horiek transferitzeko eskubideak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (2018ko abenduaren 6ko BOE) eta Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren arabera arautuko dira, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudia-
ren arabera ere.

I. ERANSKINA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte hobetutako merezimenduak baino ez dira barematuko.

Izangaiek ezin izango dute 10 puntu baino gehiago lortu merezimenduen balorazioagatik.

I.– IBILBIDE PROFESIONALA (gehienez 3,000 puntu).

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagirak
<p>I.1.– Irakaskuntzako funtzio publikoa osatzen duten kidegoetako karrerako funtzionario gisa eskakizun gisa eskatutako zortzi urteko esperientzia gainditzen duen urte bakoitzeko.</p> <p>* Hilabete/urte-zati bakoitzeko, 0,0416 puntu gehituko dira.</p>	0,500	<p>Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioko organo eskudunak ziurtatutako zerbitzu-orria, lanpostuaz jabetzeko eta kargua uzteko data eta kidegoa jasotzen dituena. Halakorik ezean, izendapenaren egiaztagirak edo horien fotokopiak, lanpostuaz jabetzeko eta kargua uzteko data eta kidegoa adierazita.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta erkidego honetatik kanpoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.</p>
<p>I.2.– Hezkuntza Administrazioako 26. mailako edo goragoko lanpostuetan egindako zerbitzu-urte bakoitzeko.</p> <p>* Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0416 puntu gehituko dira.</p>	0,500	Aurrekoa bezala.
<p>I.3.– Katedradunen kidegokoa izateagatik.</p>	2,000	<p>Hezkuntza-administrazioko organo eskudunaren ziurtagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko katedradunen kidegokoa izatea.</p>

Oharrak:

I.a.– I.1 atalean, gehienez bost urte baloratuko dira, deialdian eskatzen den lanbide-jarduneko zortzi urteen ondoren.

I.b.– Emandako zerbitzuak I.1 eta I.2 azpitaletako bakar batean baloratuko dira, eta ezin izango dira puntuazioak metatu zerbitzuak aldi berean eman badira.

I.c.– Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osoan izendapen jarraitua izatea, edo, bestela, ikasturte berean egindako jarduera-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak izatea.

I.d.– Hilabete osotzat hartuko dira hogeita hamar zerbitzu-egun, jarraituak izan edo ez.

II.– BEHIN-BEHINEKO IKUSKARI GISA JARDUTEA (gehienez 3,000 puntu).

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
<p>II.1.– Behin-behineko ikuskari lanpostuetan emandako zerbitzu-urte bakoitzeko.</p> <p>* Hilabete/urte-zati bakoitzeko, 0,0625 puntu gehituko dira.</p>	0,750	<p>Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emandako zerbitzu-orria. Honako hauek jasoko ditu: zer egunetan jabetu zen lanpostuaz, zer egunetan utzi zuen eta betetako postua. Halakorik izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo horien fotokopiak. Honako hauek jasoko dituzte: zer egunetan jabetu zen lanpostuaz, zer egunetan utzi zuen eta betetako postua.</p> <p>** Ofizios zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta erkidego honetatik kanpoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.</p>

Oharrak:

II.a.– Atal honetan, lanpostuak betetzeko deitutako merezimendu-lehiaketetan parte hartzearen ondorioz lortutako lanpostuetan behin-behineko ikuskari gisa emandako urteak bakarrik hartuko dira kontuan.

II.b.– Atal honetan ez dira baloratuko kasuan kasuko funtzio publikoko kidegoan sartzeko edo horra iristeko baloratu diren zerbitzu-urteak.

III.– ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA KOORDINAZIO DIDAKTIKOKOAK BETETZEA (gehienez 3,000 puntu)

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
<p>III.1.– Ikastetxe publikoetako edo laguntza-zerbitzuetako zuzendari gisa egindako urte bakoitzeko, ebaluazioa positiboa izan bada.</p>	0,750	<p>Izendapenaren egiaztagiriaren fotokopia, dagokion Hezkuntza Administrazioako organo eskudunak emana. Agiri horretan, lanpostuaz jabetzeko eta kargua uzteko data jaso behar da, edo, hala badagokio, jarraitzeko data.</p> <p>** Ofizios zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste erkidego batzuetako ikastetxe publikoetan emandako zuzendaritza-kargu hauek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude:</p>
<p>III.2.– Ikasketaburu, idazkari, zuzendariorde, idazkariorde, irakasle ordezkari Lanbide Heziketako ataletan, Batxilergoko luzapenetan edo Bigarren Hezkuntzako ataletan ikasketaburu aritu izandako urte bakoitzeko. Hori guztia ikastetxe publikoei dagokienez.</p>	0,500	<p>zuzendaria, idazkaria, ikasketaburua eta haren ondokoak, zuzendariordea, idazkariordea, Lanbide Heziketako idazkariordea eta gaueko ikasketaburua.</p>

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
III.3.– Ikastetxe publiko batean saileko buru, ziklo edo etapako koordinatzaile, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako koordinatzaile, Lanbide Heziketako eta Lantokiko Prestakuntzako koordinatzaile edo irakaskuntza koordinatzeko beste organo batzuetako koordinatzaile gisa aritutako urte bakoitzeko.	0,100	

Oharrak:

III.a.– Ikastetxe publikotzat hartzen dira hezkuntza-administrazioek sortu eta sostengatutako ikastetxeen sare publikoan integratuta daudenak.

III.b.– Ikasurte berean hainbat kargu aldi berean bete badira, puntuazioak ezin izango dira metatu, eta horietako bat bakarrik baloratuko da (puntuazio handiena duena, desberdina izanez gero).

III.c.– Atal honetan ez dira baloratuko kasuan kasuko funtzio publikoaren kidegoan sartzeko edo horra iristeko baloratu diren karguak.

IV.– PRESTAKUNTZA ZIENTIFIKOA ETA DIDAKTIKOA ETA BESTE MEREZIMENDU BATZUK (gehienez 2,000 puntu).

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
IV.1.– Prestakuntza zientifikoa eta didaktikoa (gehienez 0,700)		
IV.1.1.– Unibertsitate-titulu ofizialak, sartzeko betekizun gisa alegatutakoaz bestelakoak.		
IV.1.1.1.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, ingeniari tekniko, arkitektura tekniko edo legez baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko, eta lizentzia, arkitektura edo ingeniariaren lehen zikloari dagozkion ikasketetarako.	0,225	Dagokion tituluaren fotokopia edo, hala badagokio, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko BOE). Lehen zikloko ikasketen kasuan, ikasketa horiei dagozkien irakasgai guztiak gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiri akademikoa.
Atal honetan ez dira inola ere baloratuko lizentzia, ingeniari edo arkitekturako lehen titulua lortzeko gainditu behar izan diren izaera horretako tituluak edo ikasketak.		
IV.1.1.2.– Bigarren zikloko titulazioak: Lizentzia, Ingeniari, Arkitektura edo ondorio guztietarako legez baliokidetzat jotako tituluen bigarren zikloari dagozkion ikasketengatik. Halaber, atal honetan gradu-titulua baloratuko da.	0,350	** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden diplomaturak, ingeniari teknikoak, arkitektura teknikoak, lizentziak, ingeniariak, arkitekturak eta graduak.
Atal honetan ez dira inola ere baloratuko lizentzia, ingeniari edo arkitekturako lehen titulua lortzeko gainditu behar izan diren ikasketak (lehen zikloa, bigarren zikloa edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).		
IV.1.1.3.– Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailako Musika Eskolek eta Arte Eskolek emandako Araubide Bereziko Irakaskuntzen titulazioak, eta Berariazko Lanbide Heziketako titulazioak:		Dagokion tituluaren fotokopia edo, hala badagokio, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden tituluak/ziurtagiriak.
a) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko.	0,200	
b) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,175	

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiria
c) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,175	
d) Goi-mailako kirol-teknikariaren titulu bakoitzeko.	0,175	
Atal honetan ez dira inola ere baloratuko lizentzia, ingeniari-titulu edo arkitekturako lehen titulua lortzeko gaitasun behar izan diren izaera horretako ikasketak.		
IV.1.2.– Graduondokoak eta doktoregoak.		
IV.1.2.1.– Ikasketa Aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala, Ikertzeko Nahikotasuna edo beste edozein titulu baliokide, betiere irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza ez badira.	0,175	Dagokion ziurtagiriaren edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. ** Ofizioz zenbatuko da doktore-titulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badago.
IV.1.2.2.– Doktore-titulua izateagatik.	0,200	
IV.2.– Ikuskatze-funtzioa betetzeko berriazko prestakuntza (gehienez 0,500)		Dagokion erakundeak edo ikastetxeak emandako egiaztagiria, non berriaz adieraziko baita ikastaroak zenbat kreditu edo ordu iraungo duen. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da puntuazirik lortuko atal honetan.
Gaunditutako etengabeko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaro bakoitzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko eginkizunekin lotuta, hezkuntza-eskumen osoak dituzten administrazio publikoak edo unibertsitateak deituta, edo hezkuntza-administrazioen erakunde laguntzaileek antolatutako etengabeko prestakuntza-planaren barruko jarduerak, edo dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerak:		Etengabeko prestakuntza-planean jasotako edo Hezkuntza Administrazioak onartutako jarduerarako, berriaz adierazi behar da jardura hori aipatutako planean sartuta dagoela edo Hezkuntza Administrazioak onartuta dagoela.
a) Gutxienez 3 kreditu	0,050	** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak, bai eta sail horren etengabeko prestakuntza-planean sartutako edo hark onartutako jarduerak ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.
b) Gutxienez 10 kreditu.	0,100	
(*) Azpiatal honen ondorioetarako, gutxienez bi kredituko ikastaroak metatu ahal izango dira, atal honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.		
IV.3.– Hizkuntzak jakitea (gehienez 0,300)		
IV.3.1.– B2 mailako titulu, egiaztapen edo ziurtagiri bakoitzeko.	0,100	Ikasketa-ziurtagiria edo dagokion titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduaren arabera (uztailaren 13ko BOE).
IV.3.2.– C1 edo C2 mailako titulu, egiaztapen edo ziurtagiri bakoitzeko.	0,200	** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden tituluak/ziurtagiriak.

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
<p>IV.4.– Beste merezimendu batzuk (gehienez 0,500)</p> <p>IV.4.1.– Hautetsitako kide gisa, ikastetxeko Eskola Kontseiluan irakasleen ordezkari lanetan aritutako urte bakoitzeko</p> <p>IV.4.2.– Hautaketa-prozesuetan epaimahaikide gisa parte hartzeagatik. Prozesu bakoitza</p>	<p>0,050</p> <p>0,100</p>	<p>Izendapenaren egiaztagiriaren fotokopia, dagokion Hezkuntza Administrazioako organo eskudunak emana. Agiri horretan, lanpostuaz jabetzeko eta kargua uzteko data jaso beharko da, edo, hala badagokio, jarraitzeko data.</p> <p>Prozedura horietako epaimahaien aktak zaintzeko ardura duen hezkuntza-administrazioaren organoak emandako ziurtagiria.</p> <p>** Ofizios zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako sartzeko edo iristeko hautaketa-prozeduretako epaimahaikide gisa 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jarduna.</p>
<p>IV.4.3.– Hezkuntzako Ikuskaritzaren berezko eginkizunekin zerikusia duten argitalpen didaktiko edo zientifikoengatik:</p> <p>Egiletzagatik Egilekidea edo egile-taldea</p> <p>Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan xedatutakoaren arabera ISBNa adierazi behar duten baina halakorik ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta egileak berak editatu dituenak ere.</p>	<p>0,100</p> <p>0,050</p>	<p>Aleak aurkeztearen ordez, pdf fitxategi bat aurkeztu ahal izango da, eta fitxategi hori merezimenduen aplikaziora igo beharko da. Pdf horrek, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: ataria, baloratu beharreko dokumentuaren lehen 10 orrialdeak gutxienez, ISBN edo ISSN agertzen den orrialdea edo orrialdeak, eta egilea edo egileak agertzen diren orrialdea edo orrialdeak. Gainera, argitaletxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, honako hauek jasotzen dituenak: liburuaren izenburua, egilea (k), ISBN, lege-gordailua eta lehen argitalpenaren data, ale-kopurua eta liburu-denda komertzialetan zabaldu direla.</p> <p>Administrazio publikoek eta unibertsitateek (publiko-pribatuak) argitaratu eta liburu-denda komertzialetan zabaldu ez diren liburuei dagokienez, aurreko datuez gain, ziurtagirian hedapen-zentroak (ikastetxeak, irakasleen zentroak, kultura-erakundeak, etab.) ere jaso behar dira.</p> <p>Argitaletxea edo elkarteak desagertu bada, zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bidez justifikatu beharko dira ziurtagiri honetan eskatzen diren datuak.</p> <p>- Formatu elektronikoa bakarrik ematen diren argitalpenen kasuan, txosten bat aurkeztuko da, eta, bertan, erakunde igoerleak ziurtatuko du argitalpena dagokion datu-base bibliografikoan agertzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, urtea eta URLa. Txostena aurkeztu ezin bada, erakunde emailea desagertu delako edo atzerrian argitaratutako argitalpenak direlako, txosten horretan eskatutako datuak zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez justifikatu beharko dira.</p>

Oharrak:

IV.a.– Titulazioak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa edo aitortpena aurkeztu beharko da lanbide arautu bateko jardueretan sartzeko.

IV.b.– Ez dira inola ere baloratuko titulu akademikoa, masterra, doktoregoa edo graduondoko beste tituluren bat lortzeko helburua duten ikastaroak edo irakasgaiak. Era berean, ez dira baloratuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle-lanbideetan aritzeko gaitzen duen Espezializazio Didaktikoaren Titulua, Gaitasun Pedagogikoaren Ziurtagiria edo Masterraren Titulu Ofiziala lortzea helburu duten ikastaroak edo jarduerak.

IV.c.– Ikastaroak edo jarduerak ordutan adierazita badaude, hamar ordu bakoitza kreditu baten baliokidea dela ulertuko da. Izangairen batek ECTS (European Credit Transfer System) kredituetan prestatzeko ikastaro edo jardueraren bat aurkezten badu, dagokion ziurtagiriarekin batera kreditu horien baliokidetasuna aurkeztu beharko du, dagokion unibertsitatearen edo hezkuntza-administrazioaren erabakiaren arabera.

IV.d.– Egiazta daitezkeen beste master batzuk, ez daudenak araututa urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuan, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan, IV.2 azpiatalean baloratu ahal izango dira.

IV.e.– Ez dira sartu berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak; beraz, ez dira baloratu behar.

IV.f.– Izangaiak parte-hartzaile edo laguntzaile gisa parte hartu duen prestakuntza-jarduerak soilik hartuko dira kontuan; ez dira kontuan hartuko izangaiak irakasle, txostengile, koordinatzaile, zuzendari edo tutore gisa parte hartu badu.

IV.g.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak emandako Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagirian prestakuntza-jarduera bat jasotzeak ez du esan nahi jarduera hori automatikoki merezimendutzat hartzen denik deialdi honetarako, eta hori IV.2 azpiapartatuan aurreikusitako baldintzen arabera zehaztu beharko da.

IV.h.– Unibertsitateek deitutako ikastaroak unibertsitateek emandako ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira. Ez dira unibertsitateek deitutako ikastarotzat hartuko Hezkuntzan eskumenik ez duten erakunde pribatu edo publikoek antolatutako ikastaroak, unibertsitate baten babesa edo lankidetzat besterik ez dutelako. Udako unibertsitateen prestakuntza-jarduerak unibertsitate batek deituta bakarrik baloratuko dira.

IV.i.– Ez dira inola ere kontuan hartuko hezkuntzako ikuskaritzak berak zuzenean antolatutako prestakuntza-jarduerak.

IV.j.– Iraupena ordutan edo kreditutan adierazten ez duten ikastaroen ziurtagiriak ez dira baloratuko, nahiz eta ziurtagiri horietan ikastaroak egin ziren egunak edo hilabeteak agertu.

IV.k.– Ikastaro bat baino gehiago egiteko aldia osorik edo zati batean gainjartzen bada, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, mesedegarriena.

IV.l.– Aurkeztutako ikastaroen ziurtagirietan prestakuntza-orduak eta egindako praktiken orduak bereizita agertzen direnean, ziurtatutako ordu guztien batura hartuko da kontuan.

II. ERANSKINA

Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko prozeduraren oposizio-faseko gai-zerrendaren A zatia:

- 1.– Hezkuntza, herritarren oinarrizko eskubide gisa. Derrigorrezko hezkuntza: jatorria, hedapena eta joerak.
- 2.– Gaur egungo gizartearen hezkuntza-beharrak. Hezkuntzaren kontzeptua, etengabeko prozesu gisa.
- 3.– Hezkuntzaren garrantzia Europar Batasunean. Europako Heziketa Programak.
- 4.– Heziketa-ekintza atzerrian.
- 5.– Hezkuntza-sistemaren helburuak Europako hezkuntza-helburuen barnean.
- 6.– 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. Egitura, printzipioak, xedeak eta edukia.
- 7.– Hezkuntza-sistema Espainian: ezaugarriak, egitura eta antolaketa.
- 8.– Hezkuntzaren kalitatea eta ekitatea. Hezkuntza eta kohesio soziala. Hobetzeko politikak.
- 9.– Oinarrizko irakaskuntza, ikasleen hezkuntza komunaren berme gisa eta aniztasunari arreta oinarrizko printzipio gisa. Curriculumaren elementuak. Oinarrizko konpetenziak, curriculumaren elementu kohesionatzaile gisa.
- 10.– Heziketa- eta lanbide-orientazioa. Tutoretza irakasleen jarduera gisa.
- 11.– Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua. Prozesuaren elementuak eta faseak. Ikasteko baldintzak eta moduak.
- 12.– Hezkuntzaren dimentsio etikoak: balioen hezkuntza.
- 13.– Aukera-berdintasuna hezkuntzan. Aniztasunaren tratamendurako berariazko neurriak.
- 14.– Berdintasunerako hezkuntza. Hezkidetzak. Hezkuntza, kultura anitzeko testuinguruetan.
- 15.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Hezkuntzan eta ikastetxeen kudeaketan duten eragina.
- 16.– Irakurketaren sustapena eta liburutegien erabilera. Irakurmenaren garapena, ohiturak eta jarrerak. Neurriak eta programak.
- 17.– Ebaluazioaren printzipioak eta eredu orokorrak hezkuntza-sisteman. Hezkuntza-ebaluazio motak, helburuak eta prozedurak.
- 18.– Ebaluazioaren garrantzia irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Ebaluazioaren ezaugarriak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.
- 19.– Heziketa-arloko esperimentazioa, ikerketa eta berrikuntza. Heziketa-berrikuntzak sarteak, zabaltzeak eta indartzeak eragiten dituen zailtasunak eta estrategiak. Heziketa-berrikuntzaren ebaluazioa.
- 20.– Irakasleen prestakuntza: hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza. Irakasleen prestakuntzaren egiturak. Prestakuntzaren garrantzia ebaluatzea irakasle-lanetan.
- 21.– Eskola-komunitatearen parte-hartzea Espainiako hezkuntza-sisteman. Partaidetza-organoak. Europar Batasuneko joera nagusiak.
- 22.– Ikastetxeen pedagogia-, antolakuntza- eta kudeaketa-autonomia. Horien printzipioak eta Europar Batasuneko joera nagusiak.
- 23.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektua. Curriculum zehaztea, eta zikloa, departamentua eta ikasgelaren programazioak.
- 24.– Ikastetxeen egiturazko eta antolakuntzazko elementuak. Ikastetxe publikoen gobernurako eta irakasleen koordinaziorako kide anitzeko organoak. Ikasle guztiei beren beharren arabera arretan laguntzeko antolakuntza-estrategiak.
- 25.– Ikastetxe publikoen zuzendaritza. Zuzendaritza-taldea. Zuzendarien hautaketa eta prestakuntza. Zuzendari-funtzioaren gaitasunak. Europako ikastetxeen zuzendaritza- eta kudeaketa-ereduak.
- 26.– 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen ezaugarri nagusiak. Haur Hezkuntzaren xedea. Helburuak, antolaketa eta pedagogia-printzipioak. Oinarrizko araudia.

- 27.– 6 eta 12 urte bitarteko ikasleen ezaugarri nagusiak. Lehen Hezkuntzaren xedea. Helburuak, antolaketa, pedagogia-printzipioak eta oinarrizko kompetentziak. Diagnostikoaren ebaluazio orokorra. Oinarrizko araudia.
- 28.– 12 eta 18 urte bitarteko ikasleen ezaugarriak. Bigarren Hezkuntzaren xedea. Helburuak, antolaketa, pedagogia-printzipioak eta oinarrizko kompetentziak. Curriculum anitzeko programak. Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak. Diagnostikoaren ebaluazio orokorra. Oinarrizko araudia.
- 29.– Batxilergoaren xedea. Oinarrizko araudia. Modalitateak eta hautazkotasuna. Ebaluazioa eta sustapena. Unibertsitatera sartzeko proba.
- 30.– Lanbide Heziketaren xedea. Oinarrizko araudia. Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Legea.
- 31.– Araubide bereziko irakaskuntzak: hizkuntza-irakaskuntza, arte-irakaskuntza, kirol-irakaskuntza. Oinarrizko araudia.
- 32.– Helduen Hezkuntza. Urrutiko hezkuntza. Oinarrizko araudia.
- 33.– Hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleak. Pedagogia-printzipioa, eskolatzea eta berariazko programak.
- 34.– Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei buruzko arauak: sartzeko baldintzak, hautaketa, espezialitateak, esleipena eta mugikortasuna.
- 35.– Bigarren Hezkuntzako irakasleei buruzko arauak: sartzeko baldintzak, hautaketa, espezialitateak eta mugikortasuna.
- 36.– Ikastetxeak. Araubide orokorreko ikasketak irakasten duten ikastetxeen gutxieneko baldintzak.
- 37.– Ikastetxe pribatuak. Ikastetxe motak. Ikastetxe pribatuen baimena. Kompetentziak eta berezko izaera. Itunpeko ikastetxe pribatuak. Xedapen arautzaileak.
- 38.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera funts publikoarekin sostengatuko ikastetxeetan ikasleen onarpena. Berdintasuna onarpen-arauak aplikatzerakoan. Eskolatze orekatua. Doakotasun-bermeak.
- 39.– Ikastetxeak ikuskatzea: proposamenak, joerak eta eskolak.
- 40.– Hezkuntzako ikuskaritza Espainian: azterketa historikoa.
- 41.– Hezkuntzako ikuskaritza Europar Batasuneko herrialdeetan: konparaziozko azterketa.
- 42.– Hezkuntzako ikuskaritzaren funtzioak eta eskuduntzak. Funtzionamenduaren oinarrizko arauak. Deontologia profesionala.
- 43.– Ikastetxeen funtzionamenduaren ikuskatze eta kontrola, ikuspegi pedagogiko eta antolakuntzakotik, baita horietan eragiten duten programak ere.
- 44.– Irakasle-lanen eta zuzendaritza-funtzioaren ikuskaritza. Teknikak eta tresnak. Etengabeko hobekuntzan laguntzea.
- 45.– Ikuskariaren jarduteko moduak ikastetxean. Ikuskatze-bisita.
- 46.– Ikuskaritza-txostenak. Txosten motak. Osatzeko eta izapidetzeko arauak.
- 47.– Zuzendaritza-taldeei, irakasleei eta irakasleen koordinazio-organoei aholkularitza eskaintzeko esku-hartze modalitateak. Hezkuntza-komunitatearen sektoreei informazioa ematea.
- 48.– Ikasleen ebaluazioa hezkuntza-sistemaren fase desberdinetan. Irakaskuntza desberdinek lortzen dituzten titulazioak. Oinarrizko araudia. Hezkuntzako ikuskaritzaren jarduera.
- 49.– Irakasleen irakasle-lanak ebaluatzea: helburuak, adierazleak, eragileak eta ebaluazio-tresnak. Ikuskaritzaren parte-hartzea irakasleen ebaluazioan.
- 50.– Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa: ereduak, helburuak, eragileak eta ebaluazio-tresnak. Hezkuntzako ikuskaritzaren jarduera.
- 51.– Ikastetxeen barne- eta kanpo-ebaluazioa. Helburuak, estrategiak eta tresnak. Prozesuen eta emaitzen ebaluazioa. Ebaluazio-txostenak. Hobetzeko planak. Hezkuntzako ikuskaritzaren jarduera.

52.– Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa: helburuak, esparruak, adierazleak eta tresnak. Diagnostikoaren ebaluazio orokorrak. Kudeaketa-organoak. Hezkuntza Ministerioaren Ebaluazio Institutua. Hezkuntzako ikuskaritzaren funtzioa hezkuntza-sistemaren ebaluazioan.

53.– Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Administrazio-prozeduren izapideak.

54.– Irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzen duten organoak eta estatu mailako organo aholku-emaileak. Estatu Eskola Kontseilua.

55.– Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko hezkuntza-gaitasunen banaketa. Estatuaren eskumenak hezkuntzaren alorrean.

Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko prozeduraren oposizio-faseko gai-zerrendaren B zatia:

1.– Autonomia Erkidegoa Espainiako Konstituzioaren barnean. Autonomia Estatutua: egitura eta edukia. Hezkuntza-eskumenak. Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioa. Egitura organikoa. Zuzendaritza-organo bakoitzaren eskumenak.

2.– Funtzio Publikoa dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Funtzionarioen betebeharrak eta eskubide indibidualak eta kolektiboak. Bateriaezintasunen araubidea. Langileen, administrazio- eta zerbitzu-funtzionarioen eta, bereziki, irakasleen lan-baldintzei buruzko hitzarmenak eta akordioak. Lan-ordutegiak, lizentziak, oporrak eta baimenak.

3.– Dagokion hezkuntza-administrazioaren menpeko funtzionario eta langileen diziplina-araubidea. Hezkuntzako ikuskaritzalanetan ondorioak. Diziplinako espedienteak: prozeduraren arauak.

4.– Gizarte-sektoreen parte-hartzea Hezkuntzan. Partaidetza-organoak. Dagokion hezkuntza-administrazioari dagokion Eskola Kontseilua: egitura, osaera eta funtzioak. Parte hartzeko beste modu batzuk.

5.– Hezkuntzako ikuskaritza dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Antolamendua eta funtzionamendua. Lanpostuetara sartzea eta hornitzea. Ikuskarrien prestakuntza eta ikuskaritzaren ebaluazioa.

6.– Hezkuntzako ikuskaritzaren Jarduteko Plana dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan: helburuak, egitura eta jarduteko moduak. Jarduteko Planaren aplikazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

7.– Haurren eskubideak. Adingabearen babes juridikoa dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Adingabeen erantzukizun penala.

8.– Elkarbizitza eta gatazken prebentzioarako hezkuntza, eta gatazka era baketsuan ebaztea. Bizikidetzaren plana. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan.

9.– Ikastetxeetako zerbitzu osagarriak dagokien hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Antolakuntza eta funtzionamendua gidatzen duten jarduteko printzipioak. Hezkuntzako ikuskaritzaren jarduerak zerbitzu horien plangintzan eta ebaluazioan.

10.–Ikasleen eskolatzearen plangintza, antolaketa eta ikuskaritza funts publikoek sostengatutako ikastetxeetan. Dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan hori arautzen duen berariazko araudia.

11.– Haur Hezkuntzaren Curriculuma: helburuak, edukiak, pedagogia-metodoak eta ebaluazio-irizpideak.

12.– Lehen Hezkuntzako Curriculuma: helburuak, oinarriko eskumenak, edukiak, pedagogia-metodoak eta ebaluazio-irizpideak.

13.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Curriculuma: helburuak, oinarriko eskumenak, edukiak, pedagogia-metodoak eta ebaluazio-irizpideak.

14.– Batxilergoaren Curriculuma: helburuak, antolaketa eta pedagogia-printzipioak.

15.– Lanbide Heziketa. Helburuak. Eskuratzeko baldintzak. Eskaintzaren edukia eta antolamendua. Ebaluazio-irizpideak.

16.– Hezkuntza-laguntzaren berariazko beharrak dituzten ikasleen arreta eta eskolatzea, dagokien hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Identifikazio goiztiarra eta balorazioa. Eskolatzeko modalitateak.

17.– Ikastetxeen zuzendaritza eta kudeaketa. Zuzendarien hautaketa eta izendapenaren prozedura dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Zuzendaritza-funtzioari laguntza eta horren aintzatespena.

18.– Ikasleen heziketa-ebaluazioa helburuei, edukiei, ebaluazio-irizpideei eta, hala badagokie, oinarrizko gaitasunei dagokienez. Ebaluazio motak eta ebaluaziorako tresnak. Ebaluazioa eta errekupeazioa. Ebaluazioa eta eskola-sustapena. Ikasleek irizpide objektiboekin bat etorri ebaluatzeko duten eskubidea. Hezkuntzako ikuskaritzaren jarduera.

19.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikastetxeetan. Horien erabilera administrazio- eta kudeaketa-alarretan eta tresna didaktiko gisa. Praktikak dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Hezkuntza-ikuskaritzak horien sustapen eta hedapenean duten garrantzia.

20.– Hezkuntza- eta lanbide-orientazioa dagokion hezkuntza-administrazioaren lurralde-eremuan. Tutoretza, araubide orokor eta bereziko irakaskuntzetako irakaslearen funtzioaren zati gisa. Orientazio-departamentuen funtzioak eta hezkuntza- eta psikopedagogia-orientaziorako taldeak.

21.– Espainiako hizkuntza-eskubideak eta -betebeharrak. Konstituzioa eta Autonomia Estatutuak. Autonomia-lurraldeetako hizkuntza-koofizialtasuna. Hizkuntza-normalizazioaren legeak. Jurisprudentzia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoan sartzeko prozeduraren oposizio-faseko B zatia, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren berariazkoa, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 43.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

22.– 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa

23.– EAEko Hezkuntza Ikuskaritza. Antolaketa, egitura eta kudeaketa-sistema. Hezkuntzako Ikuskaritzaren jardunaren planak eta eragina.

24.– Zero eta hiru urte bitarteko haurren hezkuntza EAEko lurralde-eremuan. Araudia eta antolamendua.

25.– Lanbide Heziketa, 4/2018 Legearen esparruan. Antolaketa eta egitura. Lanbide Heziketako VI. Euskal Planaren eremu estrategikoak.

26.– Bizialdi osoko ikaskuntza eta urrutiko hezkuntza EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman: HHE, UHEI, Ikaskuntza Birtual eta Digitalizatuen Zentro Integratua. Araudia, eskaintza eta planak. Ikastetxeen egitura eta antolamendua.

27.– Araubide Bereziko irakaskuntzak EAEko lurralde-eremuan. Egitura, antolaketa eta curriculum-diseinua. Eskolak ematen dituzten ikastetxeak, bakoitzaren espezialitateak adierazita. Irakaskuntza horietara sartzeko probak.

28.– Hezkuntza-berrikuntzaren esperientzia ikastetxe-sareen bidez, EAEren eremuan.

29.– Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-mapa: lurralde-antolamendua, ikastetxe-motak eta hezkuntza-eskaintzaren modalitateak.

30.– EAEko ikasleak onartzea, honako printzipio hauetan oinarrituta: ekitatea, kalteberatasuna, genero-berdintasuna eta eskola-segregazioa gainditzea.

31.– EAEko haur eta nerabeen legea. Babesgabetasun-egoerak eta edozein motatako indarkeria fisikoa, psikologikoa, emozionala eta/edo sexuala. Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzea arlo horretan.

32.– Hezkuntza inklusioa eta aniztasunarekiko erantzuna. Jarduketa-planak. Aniztasunari erantzuteko programak. Arlo horretan jarduteko protokoloak.

33.– Hezkidetzak eta bizikidetzak positiboak. EAEko eremuan jarduteko ekimenak, planak, proiektuak eta protokoloak. Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzea arlo horretan.

34.– Ikastetxearen hizkuntza-proiektua. Euskara eta eleaniztasuna.

35.– Ikastetxeen barne- eta kanpo-ebaluazioa. Prozesuen ebaluazioa eta eskola-emaizten ebaluazioa. Diagnostiko-ebaluazioak EAEn. Berrikuntzarako ebaluazioa aplikatzea eta hezkuntza-kalitatea hobetzea, Hobetzeko Planak. Hezkuntza-ikuskaritzaren esku-hartzea.

36.– Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. EAEko araudi erregulatzailerak. Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzea.

III. ERANSKINA

OPOSIZIO-FASEKO PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

I. ZATIA. GAI-ZERRENDAKO A ZATIARI BURUZKO GAI BAT IDATZIZ GARATZEA

– GAIAREN AURKEZPEN A ETA EGITURAKETA.

- Sarrera, gutxienez gaiaren garrantziaren justifikazioa barne.
- Aurkezpena eta garatu beharreko edukien aurkibidea.
- Ordena logikoa azalpenaren egiturari. Gaia argi antolatzea, ulermena errazteko.
- Edukiak garatzean, atalen sekuentziario logikoa, argia eta ondo mendekoa.
- Gaia osotasunean tratatzea. Gaiaren epigrafe, atal eta gai guztien garapen osoa eta orekatua.

– GAIAREN EZAGUTZA.

- Garatu beharreko gaiaren eduki zientifiko-teorikoa eta tekniko-profesionala eguneratuta eta zorrotz ezagutzea. Domeinu epistemologikoa. Heldutasuna argudio-planteamenduan eta haren garapenean.
- Garatutako gaiari aplikatu beharreko araudia ezagutzea.
- Zehaztasuna eta egokitasuna azalpenaren. Tesien eta argudioen zorrotasuna.
- Zehaztasuna, zuzentasuna, sakontasuna eta argudio-kaudimena.
- Gaia dagokion eskumen-eremuaren eta legezko eskuduntzen barruko ikuskaritza-funtzioekin eta -jardunarekin lotzea.
- Eduki orokorrak eta espezifikoak integratzea eta hierarkizatzea.
- Gaiarekin lotutako planteamendu edo iritzi kualifikatuak aipatzea, iturri eguneratuak eta askotarikoak menderatzen direla erakutsiz.
- Informazio zehatza. Datu esanguratsuak eta garrantzitsuak. Beste eremu batzuetako edukiekin izan ditzakeen konexioak.
- Análisi- eta sintesi-gaitasuna.
- Erreferentzia bibliografiko egokiak, eguneratuak eta historikoak (hala badagokio).

II. ZATIA. HEZKUNTZA IKUSKARITZAK JARDUTEKO TEKNIKA EGOKIEI BURUZKO KASU PRAKTIKO BAT IDATZIZ AZTERTZEA

– KASUAREN IDENTIFIKAZIOA.

- Aurkezpen orokorra. Zergatik eta zertarako aztertzen den kasua. Hezkuntza eremuan testuinguruan kokatzea.
- Hezkuntza-ikuskaritzaren eskumenak, eskuduntzak eta legezko funtzioak txertatzea.
- Planteatutako kasua aztertzea. Erabilitako informazioak egokitzea. Triangulazioa. Iturriak kontrastatzea.
- Kontuan hartu beharreko lege-arauen jatorria, egokitzapena eta eguneratzea.
- Ordena, logika, koherentzia eta argitasuna.
- Zehaztasuna eta sintesia.
- Hiztegi tekniko-profesionala, administratiboa eta legala menderatzea.

– AZALPEN A ETA LEGEZKO ARGUDIOAK.

- Kasuaren aurkezpena eta horrekin lotutako egitateak.
- Alderdi garrantzitsuak zuzen eta zehatz identifikatzea.
- Planteatutako egoera behar bezala aztertzea. Irizpide teknikoa eta profesionala. Objektibotasuna.
- Kasuaren lege-azterketa, gertakari zehatzei dagokienez. Zuzentasuna eta inpartzialtasuna.
- Aplikatzekoak diren oinarri, printzipio eta lege-arauen xehetasuna. Jurisprudenzia.
- Kasua ezagutzea eta sakontzea. Ondorio posibleak eta eratorriak identifikatzea. Egin beharreko jarduketak, hala badagokio.
- Esku hartzen duten agenteak. Erakundeen arteko lankidetzak eta talde-lana, hala badagokio.
- Planteatutako kasuaren tratamendua antzeko beste batzuen ikuspegitik. Erreferentzia gurutzatuak.
- Prozedurazko eta administrazio-zuzenbideko gai egokiak behar bezala kontuan hartzea.

– ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.

- Ondorioen eta erabilitako argudioen arteko koherentzia. Planteatutako kasuarekiko eta aplikatu beharreko zuzenbidearekiko lotura.
- Ondorioak eta proposamenak sekuentziaztea eta/edo lehenestea, hala badagokio.
- Proposamenen legezotasuna, egokitasuna, erabilgarritasuna eta bideragarritasuna. Justifikazioa. Eraginkortasuna.
- Zuzenbidearen arabera irizpide propioa. Gogoeta eta ekarpen pertsonalak.

III. ZATIA. GAI-ZERRENDAKO B ZATIKO GAI BATEN AHOZKO AZALPENA.

I. ZATIKO IRIZPIDE BERAK APLIKATUKO DIRA (GAI-ZERRENDAREN A ZATIA), AHOZKO AZALPENAREN FORMATUARI DAGOZKION EGOKITZAPENEKIN.

ETA GAINERA:

– EZTABAIDA EPAIMAHAIAREKIN.

Izangaien erantzunak kontuan hartuko dira epaimahaiak egindako galdera zehatzek eragina duten aurreko irizpideen arabera kalifikazioak osatzeko, modulatzeko eta doitzeko, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Zehaztasuna, zuzentasuna, zorrotasun zientifikoa, arrazoibidea eta justifikazio akademiko edo juridiko egokia epaimahaiak planteatutako galderari emandako erantzunetan. Segurtasuna, heldutasuna eta arrazoitutako oinarriak. Erudizioa eta laburtzeko gaitasuna.
- Ahozko aurkezpenen azaldutakoak osatzen edo zabaltzen dituzten argudioak eta argibideak ematea. Erantzunen justifikazioa.
- Gogoeta autonomia, pentsamendu kritikoa, norberaren elaborazioa, norberaren ekarpenak.
- Erresilientzia planteatutako gaien aurrean, ekimena, erabakiak hartzea, enpatia eta jarrera proaktiboa.

HIZKUNTZA- ETA KOMUNIKAZIO-GAITASUNA (AHOZKOA ETA IDATZIZKOA).

Komunikazio-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa, funtsezkoak dira ikuskaritza-funtzioa betetzeko, eta, beraz, proba guztietan baloratuko da, idatzizkoetan zein ahozkoetan, balorazio-irizpide hauen arabera:

- Ideiak argi, logikoki eta argudio-maila handiz adieraztea.
- Landu beharreko gaiari eta bere lanbide-eremuari dagokion terminologia tekniko-administratiboa, legala eta akademikoa behar bezala erabiltzea.
- Arintasuna, egokitzapena eta zuzentasuna. Diskurtsoaren koherentzia eta kohesioa.
- Hizkuntzaren erregistro egokia, testu edo diskurtso motaren, gaiaren edo kasuaren, hartzailearen, komunikazio-egoeraren eta lanbide-ingurunearen arabera.
- Zuzentasun lexikoa, ortografikoa, gramatikala eta sintaktikoa.
- Idatzizko probetan, letra argia eta irakurgarria. Aurkezpen garbia eta ordenatua.

OHAR GARRANTZITSUAK:

- 1.– Proba idatziak ebaluatzeko, baloratzeko eta kalifikatzeko lanetan, epaimahaiak ezarritako irizpideei jarraituko die, eta beharrezko zehaztapenak eta egokitzapenak egin ahal izango ditu, proba horien jatorriaren arabera, zozketaren ondoriozko gaien (A eta B gai-zerrendak) eta izangaien ondorengo banakako hautaketaren bidezko edukiaren eta ezaugarrien arabera, bai eta proposatutako proba praktikoaren berezitasunen arabera ere.
- 2.– Era berean, epaimahaiak (hala badagokio, hautaketa-batzordeak) ezarriko ditu irizpide bakoitzari esleitzen zaizkion haztapena eta balio zehatza. Horri buruzko erabakiak taldean hartuko dira, proba bakoitza zuzentzeko lanak hasi aurretik, eta dagokion aktan jasoko dira, gai bakoitzari atal eta azpiatal bakoitzari emandako puntuazioa berariaz zehaztuta.

- 3.– Ahozko probetan, beren izaera eta berezko berehalakotasuna dela eta, epaimahaikideek diskrezionalitate tekniko-profesionalarekin aplikatuko dituzte irizpide horiek, aukera-berdintasunaren, objektibotasunaren eta inpartzialtasunaren oinarrizko printzipioak kontuan hartuta, eta, horretarako, kontsultak, kalibrazioak edo iruzkinak egin ahal izango dituzte kide anitzeko organo gisa, edo iritzia partekatu kalifikazioa eman aurretik; kalifikazioa, nolanahi ere, kide bakoitzarena izango da.
- 4.– Idatzizko probetan boligrafo urdina edo beltza bakarrik erabili ahal izango da. Ezin da erabili ez zuzentzailerik, ez tinta ezabagarria duen boligraforik: ezabatu behar dena lerro bakarrarekin ezabatuko da eta parentesi artean itxiko da.
- 5.– Idatzizko proba horietan, ez da kontuan hartuko epaimahaiak proba egiteko berariaz emandako orrietatik kanpo dagoen edukirik, proba deitzen den unean eta tokian. Ez eta zikin, hondatuta edo bertako edukiaz kanpoko ohar eta markekin entregatzen direnetan ere.
- 6.– Proba edo ariketa bera osatzen duten orri guztiak behar bezala ordenatuta eta zenbakituta entregatu beharko dira. Eta horietako bakar batean ere ezingo da jarri egilea identifikatzeko balio dezakeen izenik, markarik, ikurrik edo antzekorik, lanen anonimotasuna bermatzeko. Horrela balitz, ariketa osorik baliogabetuko litzateke, 0 puntuko kalifikazioa emango litzaioke eta horren berri berariaz jasoko litzateke dagokion aktan.